

Nafarroako Esaera Zaharrak. Arantza.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zaharrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Arantza.

- 1833 *A(d)ituak ez a(d)itu.*
Gorrarena egin.
- 1834 *A(d)itu ditik gaur beriak eta asto beltzarenak.*
- 1835 *Azi itzazu beliak: eta aterako tizute (dizkizute) begiak.*
- 1836 *A ze zepelina arrapatu zuen!*
A ze mozkorra!
- 1837 *Bertzen buruko bartzak ikusten: baño bere buruko zorririk ez.*
- 1838 *Erauntsia pasatu, ta guardasola atera.*
- 1839 *Ez duk ori auntzen gauerdiko eztula!*
Ez da ori txantxetako gauza.
- 1840 *Ikusi ta urrutza.*
Ikusi ondorean erraza.
- 1841 *Yaiok eriotza zor.*
- 1842 *Illun lezia: ez du arrapatuko ardi beltza.*
- 1843 *Erramu eguneko aizia, berrogi eguneko aizia.*
- 1844 *Labradoriak beti aprendiz.*
- 1845 *Mandoa saldu ta astoa erosi.*
- 1846 *Pareta gañeko ollarra.*
Guzien gañetik agertu naia.
- 1847 *Pernando Amezketarrari galdegin zioten: Zer ari zera? Eta arek erantzun:*
Atzo egositako babak eraiten.
- 1848 *Sasitik ateri, ta lartartean sartu.*
- 1849 *Silpeko (sillapeko) katua da ori.*
Loxintxaria, lausengaria, balakaria.

1850

Txakur aulari kukusua.